

“La Vuelta” Nafarroara iritsiko da Iruña eta Lekunberri artean ospatuko den etapa batekin eta Lodosan irteera izango duen beste batekin

Nafarroako Gobernuak eta lasterketako antolatzaileek herritarrei ez mugitzeko eskatu diete eta lehiaketa telebistaz ikusteko deia luzatu die, COVID-19ak eragindako egoeraren ondorioz

Astelehena, 2020ko Urriaren 19a

2020ko Espainiako “La Vuelta” txirrindularitza lasterketa asteazken eta ostegun honetan izango da Nafarroan bi etapekin; lehena Iruña eta Lekunberri artean izanen da, eta, bigarrenak, Lodosako herrian izango du irteera eta Sorian amaituko da.

(Albiste honi buruz gehiago jakin nahi baduzu, mesedez kontsulta ezazu gaztelaniazko bertsioa. Goiko nabigazio barra gorrian alda dezakezu hizkuntza.)